



ingeniaritza
ELEKA
Linguistikoa

XUXEN IV Core Duo Office

Eskuliburua



Egileak:



ixa.si.ehu.es



ingeniaritza
ELEKA
Linguistikoa

www.eleka.net

Aurkibidea

| | | |
|------|--|----|
| 1 | Hitzaurrea..... | 5 |
| 2 | Eskakizunak..... | 6 |
| 2.1 | Sistema eragilea..... | 6 |
| 2.2 | Beharrezko softwarea..... | 6 |
| 2.3 | XUXEN IV Core Duo zuzentzailearen eskakizun bereziak..... | 6 |
| 2.4 | Bateraezintasunak..... | 6 |
| 3 | Instalazioa..... | 7 |
| 4 | Desinstalazioa..... | 8 |
| 5 | Erabilera..... | 12 |
| 5.1 | XUXEN ortografia zuzentzailearen erabilera..... | 14 |
| 5.2 | XUXENg estilo eta gramatika zuzentzailearen erabilera..... | 14 |
| 5.3 | XUXENg estilo eta gramatika zuzentzailea ezgaitzea..... | 18 |
| 6 | XUXENg-k tratatzen dituen errore motak..... | 21 |
| 7 | Eranskina: tratatzen diren errore motak..... | 22 |
| 7.1 | Lokailuak..... | 22 |
| | Deskribapena..... | 22 |
| | Adibideak..... | 22 |
| 7.2 | Zerrendaketak..... | 22 |
| | Deskribapena..... | 22 |
| | Adibideak..... | 22 |
| 7.3 | "Harik eta ... arte" egituraren erabilera okerra..... | 22 |
| | Deskribapena..... | 22 |
| | Adibideak..... | 23 |
| 7.4 | Nozioak. Esapide okerra..... | 23 |
| | Deskribapena..... | 23 |
| | Adibideak..... | 23 |
| 7.5 | Nozioak: zenbatasuna. Zenbatasun-adierazpen okerra..... | 23 |
| | Deskribapena..... | 23 |
| | Adibideak..... | 23 |
| 7.6 | Bihurkarien erabilera okerra. "Ikusiko gara" motako esapideen erabilera, gaztelaniaren eraginez..... | 23 |
| | Deskribapena..... | 23 |
| 7.7 | Zenbatzaileak..... | 23 |
| | Deskribapena..... | 23 |
| | Adibideak..... | 24 |
| 7.8 | Mugatzaile errepikatuak..... | 24 |
| | Deskribapena..... | 24 |
| | Adibideak..... | 24 |
| 7.9 | Mugatasuna zenbatzaileekin..... | 25 |
| | Deskribapena..... | 25 |
| | Adibideak..... | 25 |
| 7.10 | Mugatasuna galdetzaileetan..... | 25 |
| | Deskribapena..... | 25 |
| | Adibideak..... | 25 |
| 7.11 | "guzti"ren erabilera..... | 25 |

| | |
|---|----|
| Deskribapena..... | 25 |
| Adibideak..... | 26 |
| 7.12 Zenbatzaileak “hilabete” moduko kasuetan..... | 26 |
| Deskribapena..... | 26 |
| Adibideak..... | 26 |
| 7.13 Maiztasuna sintagma zenbatzailedunetan: “-(e)ro” atzizkia..... | 26 |
| Deskribapena..... | 26 |
| Adibideak..... | 26 |
| 7.14 “baina”ren ordez, “baino” konparazio okerra..... | 26 |
| Deskribapena..... | 26 |
| Adibideak..... | 26 |
| 7.15 Bi ezeztapen perpaus berean..... | 27 |
| Deskribapena..... | 27 |
| Adibideak..... | 27 |
| 7.16 Postposizioak..... | 27 |
| 7.16.1 "Zehar" postposizioaren erabilera okerra..... | 27 |
| Deskribapena..... | 27 |
| Adibideak..... | 27 |
| 7.16.2 "Bitarte" postposizioaren erabilera okerra..... | 27 |
| Deskribapena..... | 27 |
| Adibideak..... | 27 |
| 7.16.3 "Esker" postposizioaren erabilera okerra..... | 27 |
| Deskribapena..... | 27 |
| Adibideak..... | 28 |
| 7.16.4 "Gabe" postposizioaren erabilera okerra..... | 28 |
| Deskribapena..... | 28 |
| Adibideak..... | 28 |
| 7.16.5 "Gisa" postposizioaren erabilera okerra..... | 28 |
| Deskribapena..... | 28 |
| Adibideak..... | 28 |
| 7.16.6 "Gora" postposizioaren erabilera okerra..... | 28 |
| Deskribapena..... | 28 |
| Adibideak..... | 28 |
| 7.16.7 "Goiti" postposizioaren erabilera okerra..... | 29 |
| Deskribapena..... | 29 |
| Adibideak..... | 29 |
| 7.16.8 "Legez" postposizioaren erabilera okerra..... | 29 |
| Deskribapena..... | 29 |
| 7.16.9 "Orde, ordez, ordean..." postposizioaren erabilera okerra..... | 29 |
| Deskribapena..... | 29 |
| Adibideak..... | 29 |
| 7.16.10 "-ren barne" postposizioaren erabilera okerra..... | 29 |
| Deskribapena..... | 29 |
| Adibideak..... | 29 |
| 7.17 Postposizioen salbuespenak..... | 30 |
| 7.17.1 "Behe" postposizioaren erabilera okerra..... | 30 |
| Deskribapena..... | 30 |

| | |
|---|----|
| 7.17.2 "Bila" postposizioaren erabilera okerra..... | 30 |
| Deskribapena..... | 30 |
| 7.17.3 "Parte" postposizioen erabilera okerra..... | 30 |
| Deskribapena..... | 30 |
| 7.18 Daten erabilera okerra..... | 30 |
| Deskribapena..... | 30 |
| 7.19 Nozioak: eguraldia. Esapide okerra..... | 30 |
| Deskribapena..... | 30 |
| Adibideak..... | 31 |

1 Hitzaurrea

Dokumentu hau XUXEN IV Core Duo euskarazko ortografia, gramatika eta estilo zuzentzailearen eskuliburua da.

XUXEN IV Core Duo, orain arteko XUXEN ez bezala, ez da ortografi zuzentzaile hutsa. Izan ere, ortografiaren gain hainbat estilo eta gramatika errore zuzentzeko gaitasuna du. Hori lortze aldera Eleka Ingeniaritza Linguistikoak bi tresna batu ditu, alde batetik XUXEN eta bestetik XUXENg. Eskuliburu honetan bien erabilera eta berezitasunei buruz hitz egingo dugu eta komenigarria da bakoitzaren funtzioa zein den jakitea eskuliburu hau probetxuz erabiliko badugu.

- **XUXEN**: XUXEN euskarazko ortografi zuzentzaile ezaguna da. Bertsio honetan aurreko bertsioen hainbat akats txiki zuzendu dira eta hiztegia 9000 inguru termino berriekin zabaldu da estaldura handiagoa izateko.
- **XUXENg**: XUXENek ortografia zuzentzen duen moduan XUXENg-k estiloa eta gramatika zuzentzen ditu. Adibidez, XUXENg-k esaldi luzeegiak idazten ditugula ohartaraziko digu, “hala ere” esamoldea ez dugula erabili, koma bidez banatutako zerrenda bat ez dugula ondo adierazi, etab.

XUXEN IV Core Duo Baionako Hizkia Informatiquen garatutako kodea erabiltzen du.

XUXEN IV Core Duo Xeroxek garatutako kodea erabiltzen du, zati horiei ohar hau dagokie: Copyright ©, Xerox Corporation, 2008.

2 Eskakizunak

2.1 Sistema eragilea

Windows 2000, Windows XP edo Windows Vista.

2.2 Beharrezko softwarea

Word 2000, Word 2002, Word 2003 edo Word 2007.

2.3 XUXEN IV Core Duo zuzentzailearen eskakizun bereziak

XUXENg-ren “Egiaztatu gramatika idatzi ahala” aukera erabili nahi bada, gutxienez 1GB RAM eta Core 2 Duo mailako CPUa izatea gomendatzen dugu. XUXENg-ren erabilerak makina asko moteltzen duela nabaritzen bada, 5.3 ataleko pausoak jarraituz funtzio hau ezgaitzea posible da.


2.4 Bateriaezintasunak

XUXEN IV Core Duok arazoak eman ditzake, Trados edo Wordfast tresnekin batera dokumentu handietan erabiltzen baldin bada. Ondorengo hau da arazoak eman ditzakeen egoera tipikoaren deskribapena:

- Dokumentua ingelesez idatzita dago, eta euskarara itzuli behar da.
- Dokumentua ondo markatuta ez dagoelako, edo itzulpen prozesuan zehar hala egitea erabaki delako, testua (edo zati handi bat) euskaraz balego bezala markatzen da.
- Une honetan, Word XUXENg bidez zuzentzen hasten da ingelesez idatzita baina euskara balitz bezala markatuta dagoen testua. Normala den moduan, XUXENg-k akats asko aurkitzen ditu.


Mota honetako egoerek XUXENg prozesaketa oso astuna egitera bultzatzen dute, eta gerta liteke makina asko moteltzea, edo Word ixtea. Arazo honen konponbide errazena zuzenketa gramatikala ezgaitzea da, 5.3 atalean azaltzen den bezala.

3 Instalazioa



1. Irudia: Lizentzia onartzeko leihoa


XUXEN IV Core Duo instalatzeko klik bikoitza egin instalatzailean. Instalazioa automatikoa da. Instalatzaileak XUXEN IV Core Duoren bi atalak instalatuko ditu: XUXEN ortografia zuzentzailea eta XUXENg gramatika eta estilo zuzentzailea. Instalazio prozesuak 1. eta 2. irudietan agertzen diren pantailetan zehar eramango gaitu.




2. Irudia: Instalazioa bukatuta

4 Desinstalazioa

XUXEN IV Core Duo desinstalatzeko prozedura edozein Windows aplikazioa desinstalatzeko jarraitu beharreko berbera da: nahikoa da "kontrol-panel"eko "Gehitu edo kendu programak" leihoan XUXEN IV Core Duo aukeratu eta desinstalatzailearen pausoak jarraitzea, 3., 4. eta 5. irudietan erakusten den bezala.



4. Irudia: Desinstalazio agindua berretsi




5. Irudia: Desinstalazioa bukatuta

5 Erabilera


Ortografia nahiz gramatika zuzentzaileak erabiltzeko, zuzendu nahi den testua euskaraz dagoela adierazi behar zaio Word-i. Horretarako bide errazena euskaraz dagoen testua aukeratzea, eta ondoko irudian agertzen den zerrendan “Euskara” aukeratzea da.

6. irudian testua euskaraz idatzita dago (akatsekin) baina Word-ek gaztelera balitz bezala zuzentzen du (ikusi behean eskuinean “Gaztelera” jartzen duela).




6. Irudia: Testua gaztelera markatua (Gaztelania behean, eskuinean)

Testua aukeratu eta “Gaztelania” gainean klik bikoitza eginda, 7. irudian ikus daitekeen zerrenda agertuko da. Zerrenda horretan “Euskara” klikatzen badugu, eta ondoren onartu, aukeratutako testua euskaraz zuzenduko du Word-ek.



7.irudia: Hizkuntz-aukeratze zerrenda (Españolen klik bikoitza eginez ateratzen da)

Testua euskaraz markatutakoan, Word-ek zuzenketa euskaraz egingo du. Hitz okerrak gorritz azpimarratuko ditu eta esaldi susmagarriak (gramatika erroreren bat dutelako) berdez. Saguaren eskuineko botoiarekin gorritz azpimarratutako hitz baten gainean klik egiten badugu proposamen zerrenda bistaratuko da 8. irudian ikusten den bezala.




8. Irudia: Testua euskaraz markatuta.

5.1 XUXEN ortografia zuzentzailearen erabilera

Ortografia zuzentzaileak atal honen sarreran azaldutakoaz gain ez du argibiderik behar. Nahikoa da jakitea hitz ezezagunak gorritz azpimarratuko dituela.


5.2 XUXENg estilo eta gramatika zuzentzailearen erabilera

XUXEN IV Core Duo Worden modu gardenean integratzen da beste gramatika eta estilo zuzentzaile guztien moduan. "Tresnak/Aukerak" menuaren bidez leiho honetara helduko gara.




9. Irudia: Zuzentzaileen konfigurazio leihoa

9. irudian erakusten den leihoan, “Egiaztatu gramatika idatzi ahala” aukeratuz gero, egiten ditugun eta XUXENg-k detektatzen dituen akatsak idatzi ahala berdez azpimarratuta agertuko dira dokumentuan. 10. irudian dago horren adibide bat, non “mezua bat” agertzen den, adibide moduan, berdez azpimarratuta. Aukera hau ordenagailu ahaltsuen kasuan bakarrik gomendatzen da, XUXENgk memoria eta prozesadore eskakizun handiak baititu modu honetan funtzionatzen duenean.



10. Irudia: Azpimarra berdearen adibidea

Zuzenketa interaktiboa egiteko "Tresnak/Ortografia eta gramatika" menu aukera erabili behar da. Aukera horrek 11. irudiko leihoa eramango gaitu:




11. Irudia: Zuzentze leihoa

Akatsa berdez agertzen da leihoaren goiko zatian. Akatsaren gainean akats motaren deskribapen txiki bat dator. Leihoaren beheko atalean berriz proposamenak agertzen dira (baldin badaude). Jarraian leiho honen funtzionamendua azalduko dugu botoiz botoi.

- *Ez ikusi egin behin*: gure ustez akatsik ez badago botoi hau sakatzea

nahikoa da zuzenketak ezer aldatu gabe aurrera jo dezan.


- *Ez ikusi egin arauari*: botoi horren bidez mota horretako errore guztiak baztertzeko eskatzen diogu Wordi. XUXENg-ren bertsio honetan erroreak oso multzo handietan taldekatuta daude eta botoi hau erabiltzea ia XUXENg desaktibatzearen baliokidea da.
- *Aldatu*: proposamen egokia aukeratu eta “Aldatu” botoia sakatuz gero, testua zuzen dezakegu. Proposamenak egokiak iruditzen ez bazaizkigu, edo proposamenik ez badago, posible da zuzenketa eskuz egitea ere. Horretarako nahikoa da akatsa erakusten duen leihoaren zatia editatzea eta “Aldatu” sakatzea.
- *Azaldu*: Akatsari buruzko argibide gehiago lor daitezke “Azaldu...” botoiaren bidez.
- *Aukerak*: botoi honek “Gramatika ezarpenak” izenburua duen leihora eramango gaitu zuzenean.
- *Utzi*: aukera honen bidez, zuzenketa saioa bertan behera utz dezakegu edozein unetan.



12. Irudia: Konfigurazio lehenetsia

5.3 XUXENg estilo eta gramatika zuzentzailea ezgaitzea

XUXENg estilo eta gramatika zuzentzaileak baliabide asko behar ditu eta posible da konfigurazio lehenetsiak zenbait makinatan arazoak ematea. 12. irudian ikus daiteke konfigurazio lehenetsia zein den. Konfigurazio lehenetsian XUXENg-k esaldi zati susmagarriak berdez azpimarratuko ditu idazten ditugun heinean, eta “Tresnak/Ortografia eta gramatika” leihoa erabiltzen badugu estilo/gramatika zuzenketa egingo da ortografikoarekin batera.




13. Irudia: Ez du berdez azpimarratuko

XUXENg-k testua berdez azpimarra ez dezan nahiko da “Egiaztatu gramatika idatzi ahala” ezgaitzea, 13. irudian ikusten den bezala. Kasu honetan, XUXENg-ren funtzioak “Tresnak/Ortografia eta gramatika” menu aukeraren bidez bakarrik dira atzigarri.

XUXENg erabat ezgaitzeko, “Egiaztatu gramatika idatzi ahala” eta “Egiaztatu gramatika ortografiarekin” aukera biak ezgaitu behar dira. Horren adibidea 14. irudian dago.

Laburbilduz, XUXENg hiru egoera nagusi hauetako batean egon daiteke:


- Guztiz gaituta: 12. irudian agertzen den bezala. Idatzi ahala akatsak berdez azpimarratuko dira, eta “Ortografia eta gramatika” leihoan estilo eta gramatika zuzenketak egingo dira ortografia zuzenketekin batera.
- “Ortografia eta gramatika” leihoan bakarrik gaituta: 13. irudian agertzen den bezala. Ez da idatzi ahala zuzenketa egiteko saiakerarik egingo, baina “Ortografia eta gramatika” leihoan ortografiaz gain estiloa eta gramatika zuzenduko dira.
- Erabat ezgaituta: 14. irudian agertzen den moduan. Kasu honetan ez da inoiz egingo estiloa eta gramatika egiaztatzeko saiakerarik.



14. Irudia: XUXENG ezgaituta

6 XUXENg-k tratatzen dituen errore motak

XUXENg-k detektatzen dituen erroreen zerrenda 15. irudian erakusten den leihoan bistaratzen dira. Leiho horretan agertzen diren kutxatxoetan klik eginez, errore mota bakoitzaren zuzenketa bere aldetik aktibatu eta desaktibatzea posible da. Leiho honetara iristeko, 14. irudiko leihoan "Ezarpenak" botoia sakatu behar da.



15. Irudia: XUXENg aukerak

7 Eranskina: tratatzen diren errore motak.

Ondoren, salbuespenak salbuespen, XUXENek detektatzen dituen erroreak azaltzen dira.

7.1 Lokailuak.

Deskribapena

Lokailuak (emendiozkoak) komen edo puntuazio ikurren artean jarri behar dira.

Adibideak

| Okerra | Zuzena |
|-------------------------------|--------------------------------|
| Bestalde horrela hobeto dago. | Bestalde, horrela hobeto dago. |

7.2 Zerrendaketak.

Deskribapena

Zerrendatzeak egitean, zerrendako osagai guztiak komaz banatuta egon behar dira, azken biak izan ezik, hauek "eta" edo "edo" bidez banatzen baitira. Ez da onartzen ez "eta"ren ezta "edo"ren aurretik edo atzetik komarik jartzea.

Adibideak

| Okerra | Zuzena |
|--|---|
| Patatak, porruak, azenarioak, eta tomateak erosi ditugu. | Patatak, porruak, azenarioak eta tomateak erosi ditugu. |
| Etxe handiak, txikiak, luzeak, eta motzak, denetarik dago. | Etxe handiak, txikiak, luzeak eta motzak, denetarik dago. |
| Patatak porruak azenarioak eta tomateak erosi ditugu. | Patatak, porruak, azenarioak eta tomateak erosi ditugu. |

7.3 "Harik eta ... arte" egituraren erabilera okerra.

Deskribapena

"Harik eta...arte" esapide indargarria aditz ez burutuekin erabiltzen dugunean ("Harik eta etortzen ... arte"), ezin da aditz laguntzailea bere horretan erabili; erlatibozko aditz laguntzaile bat beharko dugu aditzaren ondotik.

Adibideak

| Okerra | Zuzena |
|--|--|
| Ez mugitu harik eta nik esaten dizut arte. | Ez mugitu harik eta nik esaten dizudan arte. |

7.4 Nozioak. Esapide okerra.

Deskribapena

"Gose/egarri/bero/hotz/beldur naiz" bezalako esapideetan, "izan" erabili beharrean "ukan" erabiltzea: "*Gosea/egarra/beroa/hotza/beldurra dut".

Adibideak

| Okerra | Zuzena |
|---------------|------------|
| Gosea daukat. | Gose naiz. |

7.5 Nozioak: zenbatasuna. Zenbatasun-adierazpen okerra.

Deskribapena

Kantitatea, pisua, edukiera... adierazteko, -KO deskribatzailea erabili behar da - TAKO MG GEL erabili beharrean.

Adibideak

| Okerra | Zuzena |
|----------------------------|--------------------------|
| Zazpi litrotako botila da. | Zazpi litroko botila da. |

7.6 Bihurkarien erabilera okerra. "Ikusiko gara" motako esapideen erabilera, gaztelaniaren eraginez.

Deskribapena

"Ikusiko gara" gaztelaniatik hartutako esapidea da. Horrelakoetan, bihurkariak erabili behar dira: "Ikusiko dugu elkar / Elkar ikusiko dugu".

7.7 Zenbatzaileak

Deskribapena

"Festa batetara/batetan" bezalako sintagmetan, ez da zenbatzaile mugagabea erabili behar, singularra edo plurala baizik.

Adibideak

| Okerra | Zuzena |
|-----------------------------------|---------------------------------|
| Festa handi batetara joango gara. | Festa handi batera joango gara. |
| Festa batetara joango gara. | Festa batera joango gara. |

7.8 Mugatzaile errepikatuak

Deskribapena

Izen sintagma batek ezin baititu bi mugatzaile izan.

Adibideak

| Okerra | Zuzena |
|---|--|
| Animaliak hauek ez dira hemengoak. | Animalia hauek ez dira hemengoak. |
| Galtzak hauek txikiak dauzkat. | Galtza hauek txikiak dauzkat. |
| Azterketak bat dut gaur arratsaldean. | Azterketa bat dut gaur arratsaldean. |
| Mendia bat ikusten dut etxeko leihotik. | Mendi bat ikusten dut etxeko leihotik |
| Etxea batzuk egin nahi dituzte parkean. | Etxe batzuk egin nahi dituzte parkean |
| Liburua bat hartu nahi dut liburutegitik. | Liburu bat hartu nahi dut liburutegitik |
| Joni istorioa berria bat kontatu nahi diot. | Joni istorio berri bat kontatu nahi diot |
| Gizona zaharra bat etortzen da egunero tabernara. | Gizon zahar bat etortzen da egunero tabernara |
| Liburutegia handia bat egin nahi dute gure herrian. | Liburutegi handi bat egin nahi dute gure herrian |
| Mendia altua horretara igoko gara. | Mendi altu horretara igoko gara. |
| Parkea polita hartan egongo gara jolasten. | Parke polit hartan egongo gara jolasten. |
| Gizona zaharra horren biloba da. | Gizon zahar horren biloba da. |
| Mendia altu hau igotzea gogorra da | Mendi altu hau igotzea gogorra da |
| Etxea polit hori asko gustatzen zait. | Etxe polit hori asko gustatzen zait |
| Mendia altu horretara igoko gara. | Mendi altu horretara igoko gara. |
| Parkea polit hartan egongo gara jolasten. | Parke polit hartan egongo gara jolasten. |

7.9 Mugatasuna zenbatzaileekin.

Deskribapena

Izen sintagma batean, determinatzaile zehatz baten ondoren datozen izenak edota adjektiboak mugagabeen deklinatu behar dira.

Adibideak

| Okerra | Zuzena |
|---|--|
| Bi liburua irakurri ditut. | Bi liburu irakurri ditut |
| Bost mendia igo genituen. | Bost mendi igo genituen |
| Zazpi laguna datoz gaur afaltzera. | Zazpi lagun datoz gaur afaltzera |
| Hiru laguna zintzo dauzkat. | Hiru lagun zintzo dauzkat. |
| Bi irakaslea ohi itzuli dira. | Bi irakasle ohi itzuli dira. |
| Lau kontakizuna interesgarri dauzkat zuentzako. | Lau kontakizun interesgarri dauzkat zuentzako. |

7.10 Mugatasuna galdetzaileetan.

Deskribapena

Galderetan, determinatzaile galdetzailea mugagabea denean, jarraian datorren izenak ere mugagabea izan behar du.

Adibideak

| Okerra | Zuzena |
|-----------------------------|----------------------------|
| Zein mendiak igo dituzue? | Zein mendi igo dituzue? |
| Zein etxea erosi dute? | Zein etxe erosi dute? |
| Zein parkea berrituko dute? | Zein parke berrituko dute? |

7.11 "guzti"ren erabilera

Deskribapena

"Guzti" hitza erakuslearekin doanean, erakusleak aurretik joan behar du biek deklinabide kasu bera izan behar dute: ERAKUSLEA(erg.) + GUZTIEK(erg.).

Adibideak

| Okerra | Zuzena |
|--|--|
| Liburu guzti horiek irakurri ditut | Liburu horiek guztiak irakurri ditut |
| Horiek guztiekin joango gara mendira. | Horiekin guztiekin joango gara mendira |
| Horiek guztietatik bakarra probatuko nuke. | Horietatik guztietatik bakarra probatuko nuke. |

7.12 Zenbatzaileak “hilabete” moduko kasuetan.

Deskribapena

"hilabete", "aste bete", "urte bete" eta honelako formek bere gain dute bakarra izatearen zentzua; ezin dira, beraz, "zenbatzailearekin joan.

Adibideak

| Okerra | Zuzena |
|---------------------------------|-----------------------------|
| Hilabete bat iraun zuen bidaiak | Hilabete iraun zuen bidaiak |
| 5 aste bete egon da gaixo | 5 aste egon da gaixo |
| 7 urte bete iraun zuen bidaiak | 7 urte iraun zuen bidaiak |

7.13 Maiztasuna sintagma zenbatzailedunetan: “-(e)ro” atzizkia.

Deskribapena

-ero atzizkia duten hitzetan ezin da zenbatzailerik erabili.

Adibideak

| Okerra | Zuzena |
|-----------------------------------|---|
| Bi hilabetero egiten dugu afaria. | Bi hilabetean behin egiten dugu afaria. |

7.14 “baina”ren ordez, “baino” konparazio okerra.

Deskribapena

Konparazioetan "baina" formaren ordez, "baino" erabili behar da.

Adibideak

| Okerra | Zuzena |
|-----------------------------|-----------------------------|
| Ni zu baina azkarragoa naiz | Ni zu baino azkarragoa naiz |

7.15 Bi ezeztapen perpaus berean.

Deskribapena

"Ezer ez" formak bere gain dauka ezeztapena; beraz, ezin da beste ezeztapenik jarri perpaus berean.

Adibideak

| Okerra | Zuzena |
|----------------------|-------------------|
| Ez dut ezer ez egin. | Ez dut ezer egin. |

7.16 Postposizioak.

7.16.1 "ZEHAR" POSTPOSIZIOAREN ERABILERA OKERRA.

Deskribapena

"Zehar" postposizioaren lehen osagaia den hitzak ezin du genitiboan (noren) deklinatuta azaldu.

Adibideak

| Okerra | Arrazoia | Zuzena |
|---------------------------|---|---|
| Basoaren zehar etorri da. | Errorea ondo detektatzen du baina ez da gai proposamen egokirik sortzeko. | Basoan zehar etorri da. Basotik zehar etorri da. |

7.16.2 "BITARTE" POSTPOSIZIOAREN ERABILERA OKERRA.

Deskribapena

Bitarte postposizioaren lehen osagaia den hitzak biziduna bada ezin du deklinatu gabe azaldu. Aurreko hitzak alatiboan (nora) edo genitiboan behar du (noren). Bigarren osagaiak inesiboan (non) edo instrumentalean (zerez) deklinatuta egon behar du.

Adibideak

| Okerra | Arrazoia | Zuzena |
|----------------------------------|---|------------------------------------|
| Izaskun bitartez jakin izan dut. | Errorea ondo detektatzen du baina ez da gai proposamen egokirik sortzeko. | Izaskunen bitartez jakin izan dut. |

7.16.3 "ESKER" POSTPOSIZIOAREN ERABILERA OKERRA.

Deskribapena

"Esker" postposizioaren lehen osagaia den hitzak ezin du genitiboan (noren)

deklinatuta azaldu. Datiboan (nori) deklinatuta behar du.

Adibideak

| Okerra | Arrazoia | Zuzena |
|---------------------------|---|---------------------------|
| Zuen esker jakin izan du. | Errorea ondo detektatzen du baina ez da gai proposamen egokirik sortzeko. | Zuei esker jakin izan du. |

7.16.4 "GABE" POSTPOSIZIOAREN ERABILERA OKERRA.

Deskribapena

"Gabe", "barik", "gaberik" postposizioen lehen osagaia den hitzak ezin du mugatua egon. Deklinatu gabe edo partitiboan deklinatuta behar du.

Adibideak

| Okerra | Zuzena |
|----------------------------------|--|
| Arkatza(k) gabe ezin dut idatzi. | Arkatzik gabe ezin dut idatzi. Arkatz gabe ezin dut idatzi. |

7.16.5 "GISA" POSTPOSIZIOAREN ERABILERA OKERRA.

Deskribapena

"Gisa" postposizioaren lehen osagaia den hitzak ezin du absolutibo (nor) pluralean deklinatuta egon. Deklinatu gabe edo genitiboan deklinatuta behar du.

Adibideak

| Okerra | Zuzena |
|------------------------|----------------------|
| JainkoAK gisa bizi da. | Jainko gisa bizi da. |

7.16.6 "GORA" POSTPOSIZIOAREN ERABILERA OKERRA.

Deskribapena

"Gora" postposizioaren lehen osagaia den hitzak ezin du genitiboan (noren) deklinatuta egon. Deklinatu gabe edo inesiboan (non) edo ablatiboan (nondik) edo instrumentalean (zerez) deklinatuta behar du.

Adibideak

| Okerra | Zuzena |
|-------------------------|---------------------------|
| Eskaileren gora igo da. | Eskaileretan gora igo da. |

7.16.7 "GOITI" POSTPOSIZIOAREN ERABILERA OKERRA.

Deskribapena

"Goiti" postposizioaren lehen osagaia den hitzak ezin du genitiboan (noren) deklinatuta egon. Deklinatu gabe edo inesiboan (non) edo ablatiboan (nondik) deklinatuta behar du.

Adibideak

| Okerra | Zuzena |
|------------------------|----------------------|
| Maldaren goiti igo da. | Maldan goiti igo da. |

7.16.8 "LEGEZ" POSTPOSIZIOAREN ERABILERA OKERRA.

Deskribapena

"Legez" postposizioaren lehen osagaia den hitzak ezin du genitiboan (noren) deklinatuta egon. Deklinatu gabe behar du.

7.16.9 "ORDE, ORDEZ, ORDEAN..." POSTPOSIZIOAREN ERABILERA OKERRA.

Deskribapena

"Orde", "ordez", "ordean" postposizioen lehen osagaia den hitzak ezin du absolutiboan (nor) deklinatuta egon. Genitiboan (noren) behar du edo partizipio bat.

Adibideak

| Okerra | Zuzena |
|---------------------------|-------------------------------|
| Kotxe ordez bizikleta du. | Kotxearen ordez bizikleta du. |

7.16.10 "-REN BARNE" POSTPOSIZIOEN ERABILERA OKERRA.

Deskribapena

"Barne" postposizioaren bigarren osagaia den hitzak ezin du deklinatu gabe egon. Inesiboan (non) edo ablatiboan (nondik) edo lekuzko genitiboan (-ko) edo alatiboan (nora) behar du. Lehen osagaia den hitza genitiboan (noren) edo deklinatu gabe egon daiteke.

Adibideak

| Okerra | Zuzena |
|----------------------|------------------------|
| Menuaren barne dago. | Menuaren barnean dago. |

7.17 Postposizioen salbuespenak.

7.17.1 "BEHE" POSTPOSIZIOAREN ERABILERA OKERRA.

Deskribapena

"Behe" postposizioaren lehen osagai den hitzak ezin du genitiboa (noren) kasuan deklinatuta egon. Aurreko hitzak deklinatu gabe, edo inesiboan (non) edo ablatiboan (nondik) edo instrumentala (zerez) behar du.

7.17.2 "BILA" POSTPOSIZIOAREN ERABILERA OKERRA.

Deskribapena

"Bila" postposizioaren lehen osagaia den hitzak ezin du absolutibo (nor) pluralean deklinatuta azaldu. Genitiboan (noren) edo deklinatu gabe behar du.

7.17.3 "PARTE" POSTPOSIZIOEN ERABILERA OKERRA.

Deskribapena

"Parte" postposizioaren lehen osagaia den hitzak ezin du absolutiboan (nor) deklinatuta egon. Genitiboan (noren) behar du. Bigarren osagaiak instrumentalean (zerez, "partez") behar du.

7.18 Daten erabilera okerra.

Deskribapena

Datak, gutunen eta dokumentu ofizialen oinean azaltzen diren moduan, bi era desberdinetan idatz daitezke. Bi kasuetan egitura orokorra "Tokia, urtea hila eguna" da eta ondorengoak hartu behar dira kontutan:

- Leku izenaren ondoren datorren koma derrigorrezkoa da.
- Hila absolutibo pluralean edo genitiboan deklinatu behar da.
- Hila genitiboan deklinatzen bada egunak inesiboan behar du.
- Hila absolutibo pluralean deklinatzen bada eguna ezin da deklinatu (arau honek baditu zenbat salbuespen).

7.19 Nozioak: eguraldia. Esapide okerra.

Deskribapena

"Euria/elurra/kazkabarra/txingorra ari du" bezalako esapideetan, "izan" erabili beharrean "ukan" erabiltzea: "*Euria/elurra/kazkabarra/txingorra ari da".

Adibideak

| Okerra | Zuzena |
|----------------|-----------------|
| Euria ari zen. | Euria ari zuen. |